



Bilbo, 2024ko otsailak 3

**ZAINDU MAITE DUZUN HORI:
EGIN MATRIKULA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN**

EAEko ikastetxeetan, umeen matrikula egiteko garaia datorren honetan, gogorarazi nahi dugu zerbitzu publikoak herritarron lorpena direla, guztion eskubideak babesteko jaio zirela, eta asmo pribatizatzaileetatik aldendu behar ditugula.

Euskal Eskola Publikoaz Harro Topaguneko kideok argi dugu: **apustu sendoa egiten dugu eskola publikoaren alde**, eta gizarte osoari, baina, batez ere, beren umeak lehenengo aldiz hezkuntza sisteman matrikulatu behar dituztenei, hezkuntza publikoan egiteko arrazoiak helarazi nahi dizkiegu:

Eskola Publikoa aukerarik onena da euskara eta euskal kultura sustatzeko, euskalduna delako; berdintasunean ikasteko, unibertsala delako; gizarte kohesionatua lortzeko, inklusiboa delako. Kalitatezko hezkuntza eskaintzen die ikasle guztiei, jasangarria da, auzo eta herri guztietan dagoelako, eta sinesmen guztiak errespetatzen ditu.

Gurekin bat egin dute gaur hainbat emakume feminista, hainbat euskaltzale eta pentsio publiko duinen aldeko borrokalari, baita auzo elkarreetako kide, ekologista eta elkartasunaren munduko militante. Eskerrik asko guztiei. Herri mugimendu horietatik guztietatik ikasten dugu eta beren ekarpenak eskolaratzen saiatzen gara. Azkenik, atxikimendua adierazi diguten kultur arlokoek, hezkuntza integralaren mila osagarriak beharrezkoak direla ekarri digute gogora.

Sistemaren lehentasuna izan dadin, merezi dugulako, indartu dezagun Euskal Eskola Publikoa. Zuretzat, guretzat, guztiontzat, herritarra, onena.

Otsailaren 7tik 23ra zoaz gertuen duzun eskola publikora, ezagutu, matrikulatu, eta parte hartu.

Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunea

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeko, Astigarragako, Donostialdeko, Lasarte-Oriako, Aiztondoko eta Urola aldeko plataformak; Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak, Amurrioko Hezkuntza Publikoaren Sarea eta Debagoieneko Goieskola; EHIGE, HEIZE, Ikasle Sindikatua, Gazte Komunistak, STEILAS, CCOO Irakaskuntza, ESK.